



HLEA: AHOZKO PROBA

Proba honek bi ariketa ditu:

1. AZALPENA
2. ELKARRIZKETA

30 minutu izango dituzu prestatzeko. Hona hemen bi ariketa horien deskribapen soila:

1. AZALPENA

- 2 aldiz entzungo audioa.
 - ✓ Entzun ahala, oharrak hartu.
 - ✓ Informazioa antolatu eskemaren arabera.
- **6 minutu** inguru hitz egin behar duzu.
- Eskema erabili, baina ez irakurri aurrez prestatutako testu-zatirik.
- Azalpena osatzeko, erabili zure ezagutza eta iritzia, nahi baduzu.
- Zeuk kudeatu behar duzu ariketa hori.

Kontuan hartuko da

- ✓ Azalpena ongi antolatzea.
- ✓ Informazioa argi eta erraz azaltzea.
- ✓ Ahoskera, jarioa eta erritmoa.
- ✓ Hizkuntza-baliabideen aberastasuna.
- ✓ Zuzentasuna

2. ELKARRIZKETA

- Han bertan emango dizute gaia.
- Hizkuntza-funtzio jakinak eskatuko dizkizute; horiek bete beharko dituzu.
- **6 minutu** inguru hitz egin behar duzu.

Kontuan hartuko da

- ✓ Ideiak adierazteko gaitasuna.
- ✓ Argudiatzeko eta iritzia emateko erraztasuna.
- ✓ Ahoskera, jarioa eta erritmoa.
- ✓ Zuzentasuna

OHARRA: epaimahaian

- ✓ Nortasun agiria erakutsi behar duzu.
- ✓ Erabilitako materiala itzuli behar duzu.